



Kolonbiako

ingurumen-merkatuaren
analisi

Aukerak identifikatzea

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

LABURPEN

EXEKUTIBOA

Kolonbia lehentasunezko merkatuetako bat bezala identifikatu da Euskadiko ingurumen-sektoreko enpresen nazioarteko zabalkunderako, bere egokitasuna nabarmendua izan baita ez bakarrik faktore makroekonomikoetan eta adierazle kuantitatiboetan oinarritutako analisiaren ikuspuntutik, baizik eta baita ere sektoreko hainbat enpresaren iritziak bildu ondoren ikusi delako merkatu kolonbiarrak potentzial handia duela euskal enpresentzat.

Azterlan honen bidez zehaztu nahi dira Kolonbiako ingurumen-merkatuaren ezaugarriak eta tamaina eta, horrekin batera, identifikatu nahi da zeintzuk diren Euskadiko ingurumen arloko agenteei aplikatzeko moduko balizko aukera-ildoak.

Ingurumen-sektorea aztertzean kontuan hartu dira sei balio-kate garrantzitsuenak, hauek hain zuzen: *Uraren ziklo integrala*, *Airearen kalitatea (airea eta kutsadura)*, *Hondakinak*, *Lurzoru kutsatuak*, *Ekosistemak* eta *Fabrikazio ekoeraginkorra eta Ekodiseinua*.

Ingurumen-merkatuaren balioari dagokionez, Kolonbiakoa 5,4 mila milioi dolarrera iritsi zen 2020an; gainera, hazkunde metatuaren tasa azeleratua erakusten du, zehazki, % 8koa 2010-2020 artean. Zenbateko hori Europan erregistratutako erritmoa baino askoz azkarragoa da (% 3), eta horrexek erakusten du Kolonbiako ingurumen-merkatua zabalkunde bete-betean dagoela.

Kateei dagokienez, lehentasuna eman zaie merkatuan intzidentzia handiena dutenei eta, hortaz, enpresentzat aukera interesgarri gehien eskaintzen dituztenei, lehen postuan dagoelarik **Uraren ziklo integrala**, Kolonbiako produktu guztien % 45arekin, eta ondoren **Hondakinen kudeaketa**.

Gestión de Residuos



Suelos Contaminados



Ciclo integral del agua



Calidad ambiental



Ecosistemas



Fabricación Ecoeficiente y Ecodiseño



Araudi eta politiken ikuspegitik Kolonbiak inplikazio handia ageri du ingurumenarekiko, hainbat politika berde bereganatu dituelarik pixkanaka 90eko hamarkada amaieraz geroztik, azken urteotan ondorio nabarmenak izan dituztenak Kolonbiako airearen kalitate-indizeetan.

Aurrerapenak gorabehera, gaur egun oraindik premia handiak daude hainbat balio-katetan, esaterako **Uren saneamendu eta tratamenduarenean**, herrialde osoko uren % **33** baino ez baitira tratatzen; arazoak daude orobat **Hondakinen kudeaketa eta tratamenduaren** arloan, eskualdeko **zabortegeien % 30** ez baitira behar bezala kudeatzen. Bestalde, **Kolonbiak oraindik ez dauka esparru nazional finkatu bat lurzorua kutsadura kudeatzeko**. Zentzu horretan, landa eremuetako lurrak dira inbertsio eta hobekuntza gehien behar dutenak, eta badago eten sakon bat hiriguneen eta landa-eremuaren artean, herrialdeko **fragmentazio gradua handitzen** ari duena eta, aldi berean, eskalako ekonomien sorkuntza eragozten.

Arlo politikoan, presidentetzarako hauteskundeak 2022ko maiatzean egin ziren, eta horrek halako ziurgabetasun bat sortu du txosten honetan **araudiei dagokien** zatia idaztean, Gobernu berria ez baita eratu oraindik eta izendatu gabe baititu bere kargudunak. Datozen lau urteetan Kolonbiako ingurumen politikak hartuko duen norabidea eta garatuko dituen proiektuak Kolonbiako gobernu presidentzial berriaren esku egongo dira neurri handi batean.

Merkatu geografikoari dagokionez, Euskadiko sektorea osatzen duten enpresentzat irisgarriak diren eskualdeak lehenetsi dira, arreta-gunea hiri handietatik urrunduz,

horietan nagusi baitira tamaina handiko nazioarteko eragileak eta ia ezinezkoa da gune horietara iristea herrialdean sartzeko lehen ahaleginean. Zentzu horretan, bereziki aipagarriak dira **Antiokia, Atlantikoa, Santander, Valle del Cauca eta Cundinamarca** departamenduak. Departamendu horien barruan besteen gainetik nabarmentzen dira Valle de Aburrá edo Barranquilla metropoli-guneak, bai duten tamainagatik, bai euretara sartzeko aukerengatik, eta baita ere proiektu nahiz programa interesgarriak dituztelako martxan saneamendu, hondakinen kudeaketa edo ingurumenaren kalitate arloetan, besteak beste. Nolanahi ere, kasu guztietan funtsezkoa izango da identifikatzea eskualde bakoitzeko **Eskualde Korporazio Autonomoa** (CAR), berau delako eskualde bakoitzeko ingurumen-agintaritza eskudun nagusia eta beronekin egin beharko delako lehen urratsa.

Aukera-ildo orokorrak zehaztuz, aipagarriak dira hondakin uren tratamenduarekin lotutako fase guztietako zerbitzuak, iragazte-teknologia aurreratuak eta, oro har, uren arlorako ekipo-ondasunak. Kontuan hartzekoak dira orobat hondakinen bilketa eta balorizazioarekin lotutako teknologiak, bai eta birziklapen prozesuei buruzko *know how*-a eta hondakinak tratatzeko zein energetikoki aprobetxatzeko teknologiak. Ekipo-ondasunen eskaerak bere baitan hartuko ditu orobat airearen kalitatea neurtzeko konponbideak. Bestalde, Hondakin Solidoen Kudeaketa Integralerako Politika Nazionala inplementatzeko prozesuak 350 milioi euroko inbertsioa eskatuko du 2022 eta 2030 artean, eta hori aukera-gune bikaina izan liteke euskal enpresentzat.

Erakunde eta banku multilateralekin lotutako proiektuak ere aukera garbiak dira, baina kasu gehienetan **beharrezkoa izango**

da tokiko aliantzak lortzea edo bestelako aliantzak egitea agente estrategikoekin herrialdera sartu ahal izateko.

Laburtuz, Kolonbian badaude aukerak sektoreko enpresentzat, baina kontu handiz aztertu beharko dira bakoitzaren jardueraren berezitasunak, eta gero ongi

zehaztu beharko dira **potentzial handiena duten eskualdeak**, kasuan kasuko **sarbide-estrategia** bat definitzeko.



Alameda Urquijo, 36 5ª Planta Edificio Plaza Bizkaia
48011 Bilbao info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60